



LANGILEENTZAKO ELIKAGAIEN HORNIDURA ETA BANAKETA

3. DOKUMENTUA

PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da 2026an Partzuergoko langileentzat eta laguntzaileentzat elikagaien hornidura eta banaketa kontratatzea.

2.- ELIKAGAIEN OSAERA ETA EZAUGARRIAK

Kontratuaren xedean aipatuko diren lanak honako hauek izango dira:

Bilketa-guneetan edo etxeetan hornitzea eta eskuragarri jartzea, jarraian zehaztuko diren edukiaren eta prezioaren arabera. Hornidurak berarekin dakar produktuak hemen adieraziko diren lantokietan edo Bilboko edo udalerrri mugakideko bilketa-gune batean banatzea, bai eta etxera bidaltzea ere, zehaztuko diren kasuetan.

Eskaintzak aurkezteko, kontratua **ELIKAGAIEN BI LOTETAN** banatuko da:

❑ 1. LOTEA:

Gutxienez 735 eta gehienez 780 elikagai hornitzea eta banatzea.

1. LOTE honetarako eskaintzak hiru aukera eduki beharko ditu (A, B eta C), eta prezio berbera.

A AUKERA:

Eskaintako produktuen barietatea eta kantitatea lehenetsiko dira.

OINARRIZKO EDUKIA

2 Cava Brut Nature botila
Erreserbako ardo beltz botila 1
Ardo zuri botila 1
Likore botila 1 (whiskia, cognac, brandya, eta abar)
Kalitate goreneko turroi gogorreko kaxa 1, 250 g.
Kalitate goreneko turroi biguneko kaxa 1, 250 g.
Zainzuri lata 1, 1/2Kg. (8-10 fruitu).
Kartoizko kaxa dekoratu 1

BESTE PRODUKTU BATZUK

Halaber, arestian aipatutakoez gain, beste produktu batzuk ere eskaini ahal izango dira, hala nola urdaiazpikoa, gazta, solomoa, pateak, hegaluzea eta abar, ontziratutak, unitateko 126,66 €-ra iritsi arte (BEZa BARNE).

B AUKERA:

Kalitateari emango zaio lehentasuna (jatorri-deitura, gama altuko gourmet produktuak, jatorri ekologiko ziurtatua, hurbil ekoizitakoak, animalien ongizatea...), nahiz eta pack bakoitzean produktu gutxiago sartzea ekarri horrek. Produktuak eskaini ahal izango dira, unitate bakoitzeko 126,66 €-ra iritsi arte (BEZa BARNE).

Aukera honetan ez da oinarrizko edukirik ezarri, eta, beraz, enpresa lizitatzailleak eskainiko ditu bertan sartuko dituen produktuak, packaren kalitate- eta oreka-irizpideari jarraituz.

C AUKERA:

Aukera horrek ezin izango du edari alkoholodunik barne hartu, eta ez da nahitaezko gutxieneko edukirik xedatu. Produktuak eskaini ahal izango dira, unitate bakoitzeko 126,66 €-ra iritsi arte (BEZa BARNE).

Eskatutako kalitate-estandarren arabera eta kalitate/prezioaren inguruko balorazioaren arabera, 1. LOTEko hiru aukeretako batean ere ez da onartuko packen 114,25 €-tik beherako (BEZa barne) prezio unitariorik.

Adjudikazioa egin ostean, Partzuergoak zehaztuko du zenbat unitate hornitu eta banatu behar diren A, B edo C aukeretan.

❑ 2. LOTEA:

Gutxienez 100 eta gehienez 145 elikagai hornitzea eta banatzea, honako eduki honen arabera:

OINARRIZKO EDUKIA

Cava Brut Nature botila 1

Erreserbako ardo beltz botila 1

Ardo zuri botila 1

Likore botila 1

Kalitate goreneko turroi gogorreko kaxa 1, 250 g.

Kalitate goreneko turroi biguneko kaxa 1, 250 g.

Kartoizko kaxa dekoratu 1

BESTE PRODUKTU BATZUK

Halaber, beste produktu batzuk eskaini ahal izango dira, 60,90 €-ra iritsi arte (BEZa BARNE).

1. LOTEan bezala, eskatutako kalitate-estandarrak eta kalitate/prezio erlazioa kontuan hartuta, ez da onartuko packen 55,27 €-tik beherako (BEZa barne) prezio unitariorik.

Ontzi bakoitzaren kanpoaldean argi bereizi beharko da barruan dagoen lote mota. Hori horrela, 1. LOTEari dagozkion kasuan, zein taldetakoa den ere adierazi beharko da: 1 A taldea, 1 B taldea, 1 C taldea edo 2. taldea.

Lote bakoitzeko eskaintza indibidualizatua aurkeztuko da.

3.- ELIKAGAIEN BANAKETA

BBUPk banaketako modalitate hauen arabera banatu beharreko packen kopurua adieraziko dio enpresa adjudikaziodunari:

1. kolektiboa: packak eskuragarri jartzea Bilbon edo udalerri mugakidean dagoen banaketa-zentroan. Banaketa puntu honetan kudeatzeaz enpresa adjudikazioduna arduratuko da. 2. loteko unitateen kopuruari dagokio (gutxienez 100 – gehienez 145).

2. kolektiboa: packak entregatzea BBUPren lantokietan, adostuko diren datan eta unitateetan. Besteak beste, hemen entregatu beharko dira:

Beteluriko EUT: Buia-Arrigorriaga errepidea z/g.48480 Arrigorriaga, (Bizkaia)

Galindoko HUA: Maestro Jose zeharbidea z/g. 48910 Sestao (Bizkaia)

BERMEOKO EUT - Almike Errepidea, 5-7 - 48370 BERMEO (Bizkaia)

BURGOAKO EUT - Mendieta Auzoa - 48320 AJANGIZ (Bizkaia)

LAMIARANGO HUA - Lamiaran-Aranburu industrialdea s/n - 48360 MUNDAKA (Bizkaia)

BBUPk bere gain hartuko ditu Mundakako, Ajangizko eta Bermeoko zentroetan banatzeko kudeaketa-lanak. Sestaoko eta Arrigorriagako lantokietan, enpresa adjudikaziodunak baliaraziko ditu langileak banaketa-lanetarako 270 unitate, gutxi gorabehera.

3. kolektiboa: packak etxera bidaltzea BBUPk emandako helbideetara. Birritan ez bada entrega egitea lortzen, ordeko banaketa-zentroan jaso beharko da, eta hark gutxienez Bilbon edo udalerri mugakidean egon beharko du. Enpresa adjudikaziodunak ordu-tarte bat adostu beharko du entrega bakoitzerako. 480 unitate, gutxi gorabehera.

Enpresa adjudikaziodunak telefono-zenbaki bat helaraziko du kontratuak iraun bitartean, zerbitzuarekin lotutako gorabeherak kudeatzeko.

4.- KONTRATUAREN AURREKONTUA

Adjudikazioaren ondoreetarako, kontratua elikagaien bi LOTETAN banatuko da, eta haien prezioak ere adieraziko dira. Eskaintzaileek bi taldeetarako proposamena aurkeztu beharko dute.

Talde bakoitzaren prezioa benetan hornitutako eta banatutako packen kopuruaren arabera izango da.

Hala ere, honako hau da kontsignazio erabilgarria:

1. LOTEA: $780 \times 126,66 \text{ €} = 98.794,80 \text{ €}$ (BEZa BARNE)

2. LOTEA: $145 \times 60,90 \text{ €} = 8.830,50 \text{ €}$ (BEZa BARNE)

5.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratu honi hasierako aurrekontuaren % 2 alda dakioke gehienez, plantilla handitu edo murriztu daitekeelako.

6.- ENTREGATZEKO ETA ITZULITAKOAK BIRJARTZEKO EPEAK

Packak 2026ko abenduaren 14an, 15ean eta 16an entregatuko dira. Dena dela, adjudikaziodun suertatzen den enpresarekin beste entrega-data batzuk adostu ahal izango dira.

Salgaiak lantokietan entregatzeko ordutegia lantokien irekiera-ordutegiarekin bat etorriko da, eta aldez aurretik adostu beharko da kontratuaren zuzendaritzarekin. Banaketa-gunean entregatzeko ordutegia baloraziopean jarri beharko da, eta banaketarako ordu-tarte bat ezariko da, gutxienez 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara bitartean izanik. Etxeetara zuzenean bidaltzeko kasuetan, birritan ez bada entrega egitea lortzen, ordezeko banaketa-zentroan jaso beharko da, eta hark gutxienez Bilbon edo udalerri mugakidean egon beharko du.

Banaketa arduratzen den enpresak aldez aurretik jarri beharko du harremanetan etxean entregatuko den ordu-tartea jakinarazteko. Eta entregak huts egiten duenean, ohar bidez dokumentatuta utziko du.

Produktu akastunak edo hondatuak birjartzeko epea, gehienez ere, bi lanegunekoa izango da.

Enpresa adjudikaziodunari produktuok bilduko dituzten pertsonen zerrenda emango zaio. Hartzaileak behar bezala identifikatuko dira BBUPren identifikazio-txartelaren, NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren bidez, edo packa beste pertsona baten izenean jaso ahal izateko nahitaezko baimen-agiriaren bidez.

BBUPri eman egingo zaio jasotako produktuei buruzko egiaztagiria, bertan hartzailearen datuak argi eta garbi identifikatuta daudelarik (izena, bi abizen eta NANA).

7.- DATU PERTSONALEN BABESA

Zerbitzua zuzentasunez gauzatzeko behar diren datu pertsonalak bakarrik erabili ahal izango dira produktuak entregatuko direla ziurtatzeko, eta ez beste helburu batzuetarako.

Zentzu horretan, enpresa adjudikaziodunak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, entregarako emango zaizkion datu pertsonalen babesa eta horien



edukiaren konfidentzialtasuna bermatuta, eta sinatu egin beharko ditu kontratuaren dokumentazioari dagokion **1. eranskinean** ageri diren klausulak, DBLOaren arlokoak.

Bilbon, 2026ko ekainaren 24an

Langileen ataleko arduraduna

María Victoria Sedano Ugarte